

## GIPUZKOAKO JANSAGARRITASUN ENERGETIKOAREN ESTRATEGIA 2050EN DISEINURAKO ETA ONARPENERAKO DELIBERAZIOZKO PARTAIDETZA PROZESUAREN EMAITZEN TXOSTENA

### TESTUINGURUA

2021eko urtarrilaren 27an GFAko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiak 2021eko urtarrilaren 27an GFAko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak idatzitako “Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia 2050en diseinurako eta onarpenerako deliberaziozko partaidetza prozesuaren protokoloa” izeneko dokumentuari ekarpenak egin ahal izateko epealdia ireki zuen. Aipatu epealdia 2021eko otsailaren 26an itxi ondoren, martxoaren 5eko 43. Zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean “Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia 2050en diseinurako eta onarpenerako deliberaziozko partaidetza prozesuaren protokoloa” onartzen duen 1/2021 Ebazpena argitaratu zen (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2021/03/05/c2101612.pdf>). Era berean, protokoloa ondorengo estekan eskura daiteke: [Protokoloa](#)

Ondoren, Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiak deliberaziozko partaidetza **prozesuan izena emateko fasea** ireki zuen, zeina 2021eko martxoaren 1etik apirilaren 23ra irekita egon zena. **44 pertsona erregistratu** ziren -17 emakume eta 27 gizon- (47 izen-emate egon arren, 3 pertsona birritan erregistratu ziren):

- Banakako herritarrak: 8 herritarrek eman zuten izena (3 emakume eta 5 gizon) baina horietako 4k agertu zuten parte hartzeko interesa.
- Eskualdeetako garapen ekonomikoko agentziak (Gipuzkoako 8 agentzia erregistratu ziren, 11 ordezkariekin).
- Udalak: 3 (4 ordezkari)
- Enpresak: 5 (7 ordezkari)
- Klusterrak: 1 (ordezkari bat)
- Merkataritza elkarteak: 2 (4 ordezkari)
- Elkarte ekologistak: 1 (ordezkari 1)
- Landa garapenerako elkarteak: 1 (ordezkari 1)
- Lehen sektoreari lotutako elkarteak: 1 (ordezkari 1)
- Emakumeen elkarteak: 1 (ordezkari 1)
- Gipuzkoako eta Arabako Finka Administrazioailean Elkargo Ofiziala: ordezkari 1.
- Unibertsitateak: 1 (ordezkari 1)
- Ikerketa zentroak: 2 (2 ordezkari)
- Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikitako erakundeak: 1 (ordezkari 1)

Aurrekoarekin batera, **bai Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiak zein Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak euren web guneetan deliberaziozko partaidetza-prozesuari buruzko informazio gutzia argitaratu zuten** (protokoloa bera, jardueren kronograma eta 2021eko apirilaren 28an antolatutako informazio-jardunaldiaren inguruko informazioa, eta baita 2021eko maiatzean eta

ekainean zehar aurrera eraman ziren eztabaidarako saioena ere). Era berean, **Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak txosten honen I. Eranskinean (“Parte hartzera deitutako eragileak”) jasotzen den askotariko eragileen zerrendan agertzen diren entitateak, erakundeak nahiz elkarteak gonbidatu zituen parte hartzera** (lehenik, apirilaren 28an antolatu zen jardunaldi informatibora eta ondoren, eragilearen ezaugarrien arabera, dagokion eztabaida-saioa). Parte hartu zuten eragileen zehaztapenak “Deliberaziozko partaidetza prozesuan parte hartu duten eragileen inguruko laburpen-taulan” eta II. Eranskinean barneratu diren aktetan kontsulta daitezke.

## PROZESUAREN HELBURUAK:

Prozesuaren bidez Gipuzkoako Foru Aldundiak **lurraldeko eragileek sistema energetikoaren erdigunean rol aktiboa izatea nahi izan du, energia-ereduaren aldaketara zuzendutako sare egonkor baten oinarriak finkatu ahal izateko** (hau da, energiaren trantsizioarekin konpromisoa erakutsi duten tokiko eragileen aliantza bat eratzea). Helburu hori lortzeko asmoz, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak gobernantza arloko prozesu garden eta dinamiko bat diseinatu du, klima- eta energia-arloko helburuak erdiestea ahalbidetuko duena. Horrenbestez, GJEE 2050ek maila ezberdinak aintzat hartuko dituen gobernantza sustatzen du, zeina 2021eko apirila, maiatza eta ekainean zehar antolatutako deliberaziozko partaidetza-prozesuaren bidez lehen urratsak ematen hasi dena. Prozesu honetan Gipuzkoako gizartearen sektore ororen parte-hartzea erraztu da. Horretarako, txosten honen “2. Fasea: *Estrategiaren inguruko eztabaida*” atalean jasotzen diren mekanismoak baliatu dira.

Prozesuaren bidez honako **helburu zehatzak** lortu nahi dira:

- ✓ Estrategiaren inguruko eztabaida sustatzea.
- ✓ Estrategiaren edukia aberastera zuzendutako ekarpenak jasotzea. Hau da, lurraldearen errealitatera egokitutako trantsizio energetikoaren inguruko ikuspegi edo perspektiba ezberdinak mahai gainean jartzea.
- ✓ GJEE 2050en barneratzen diren ekintzen garapena erraztuko duten jarduerak proposatzea eta baloratzea.
- ✓ GJEE 2050en emaitzen urteroko ebaluazioa gauzatzeko orduan eta urte batetik besterako jardueren proposamenean prozesuan parte hartuko duten eragileen (eta etorkizunean batu daitezkeen eragileen ) egitekoa adostea.

Pandemia-egoera zela eta, prozesuko saio gehienak bitarteko telematikoen bidez egin ziren (salbuespen bakarra Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkideekin antolatutako eztabaida-saioak, energiari eta generoari buruzko saioa, GFAREN Departamentuarterko Batzordearen bilera eta Naturklimarekin antolatutako Estrategia kontrastatzeko saioa izan ziren).

Saio guztietan, bertaratutakoei jakinarazi zitzaion Estrategia, haren laburpen exekutiboa eta saio horietan erabilitako aurkezpenak eskuragarri daudela Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren webgunean ([www.gipuzkoaingurumena.eus](http://www.gipuzkoaingurumena.eus)), eta saio bakoitzaren ondoren, Estrategiaren edukiri buruzko ekarpen gehigarriak bidaltzeko aukera zabalik uzten zela.

## 1. FASEA: PROZESUA KOMUNIKATZEA

Komunikazio-mugarri nagusiak hauek izan dira:

- Prentsa-oharren bidalketa
- Prentsaurrekoa antolatzea



Irudia: Ingurumen Zuzendaritzaren webgunean martxoan antolatutako prentsaurrekoaren informazioa jasotzen duen albiste.

- Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiaren [web](#) gunean prozesuari buruz argitaratutako informazio zehatza:



Irudia: GFAk abiatutako zenbait partaidetza-prozesu (web gunean deskribatzen dira).

- Deliberaziozko partaidetza-prozesuaren eta Estrategiaren inguruko informazio zehatza Herritarren Partaidetzako web gunean zein Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren [web](#) gunean:



Irudia: Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren web gunean agertzen den Estrategiaren inguruko hasierako azalpena.

- Posta elektronikoen bidalketa: saio ezberdinen gonbidapenak bidaltzeko garaian euskarri hau erabili zen. Aldi berean, deliberazioko partaidetza-prozesuarekin bat egitera gonbidatu ziren entitateek planteatutako zalantzak argitzeko ere posta elektronikoak erabili zituen Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak.
- Saio ezberdinetan erabilitako “power point” erako aurkezpenak (saioak amaitu ostean, aurkezpen horiek Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren web gunean herritar orenen esku jartzen diren).
- Estrategiaren edukia azaltzeko eta deliberaziozko partaidetza prozesuaren inguruko ezaugarrien berri emateko asmoz antolatutako Informazio-jardunaldia\* (2021eko apirilaren 28ko jardunaldia garatzeko Zoom plataformara erabili zen).

**\* Estrategiari buruzko informazio-jardunaldia:**

Apirilaren 28an alde zuzetik izena emandako eragile guztiei Estrategiaren edukia azaltzeko jardunaldia ospatu zen Zoom plataformaren bidez. 53 herritarrek parte hartu zuten (23 emakume, 24gizon eta beren burua identifikatu ez zuten beste 3 pertsona), Gipuzkoako honako erakunde zein entitateek ordezkatuz:

- Udalak (5)
- Landa garapenerako elkarteak (4)

- Eskualdeetako garapen-agentziak (12)
- Energia berriztagarrien merkaturatzaileak (1)
- Gipuzkoako Foru Aldundia (antolatzaileez gain, bestelako departamentuak edo fundazioak): 5
- Talde ekologistak eta ingurumenaren aldekoak: 1
- Emakumeen elkarteak: 1
- Unibertsitateak: 1
- Enpresak: 3
- Banakako herritarrak: 2
- Prestakuntza zentroak: 1
- Ikerketa zentroak eta zentro teknologikoak: 2
- Finken administratzaileak: 1 (elkargo ofiziala)
- Bestelako entitateak: 1

Informazio-jardunaldiaren iraupena 3 ordukoa izan zen eta gehienbat izaera informatzailea izan zuen, nahiz eta Estrategiaren eta deliberaziozko partaidetza prozesuaren ezaugarrien azalpenen ondoren arte-hartzaileak euren zalantzak galdetzeko edo iradokizunak egiteko aukera izan.

Jardunaldia grabatu egin zen. Grabazioaren bideoa eta jardunaldian erabilitako aurkezpena GFAko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren web gunean nahi duen orok ikusteko moduan zen.

Jardunaldian amaitutakoan, Macarena Larreak (Deustuko Unibertsitateko Lehiakortasunaren Euskal Institutuaren –Orkestra- energiaren *lab*-eko ikertzailea) Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari Estrategiaren edukiari buruzko hainbat zalantza igorri zizkion eta horiek Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak posta elektronikoko bidez argitu ziren. Planteatutako zalantzak ondorengo alderdien ingurukoak izan ziren: Trantsizio energetikoari buruz sentsibilizatzeko orduan herritar guztiengana iritsi nahi den modua, ibilgailu elektrikoetarako baterien fabrikazioari eta horiek jatorrizko herrialdeetan dituzten gizarte- eta ingurumen-inpaktuei lotutako arazoak, bero-ponparen bideragarritasun ekonomikoa, baterien eta eguzki-panelen birziklapena bizitza baliagarriaren amaieran, biomasa eta haren inpaktuak, zerbitzuen sektoreko fotovoltaikoen instalazioak, instalazio minieolikoaren potentzia.

## 2. FASEA: ESTRATEGIARI BURUZKO EZTABAIDA

Ondorengo ataletan deskribatzen diren **deliberaziozko partaidetza-saioretan parte hartu duten eragileen ezaugarriak eta horiek egindako ekarpen nagusiak “2. Fasea: Estrategiari buruzko eztabaida” izeneko atal honen ondoren txertatu den laburpen-taulan jaso dira**. Saioretako aktak txosten honen II. Eranskin moduan jaso dira.

21 izan dira orotara antolatutako eztabaida-saioak, hurrengo orrietan talde eta azpi-taldetan banatu direnak, eta aldi berean, kronologikoki antolatu direnak:

- ✓ Gipuzkoako Foru Aldunditik kanpoko eragileak (erakundeak eta bestelako eragileak): 18 saio.
  - 5 alderdi politiko (Gipuzkoako Batzar Nagusiak)
  - Lurralde mailako 9 eragile (Lurraldeko Energia Mahaia eta eskualde mailako 8 garapen-agentzia edo mankomunitate)

- Gaikako 4 saio (unibertsitateak eta prestakuntza nahiz ikerketa-zentroak, enpresak, genero-ikuspegia eta energia uztazeko saioa, eta eztabaida-saioa Energiaren Euskal Erakundearekin)
- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundiaren baitan dauden eragileak: 3 saio.
  - Departamentu arteko Foru Batzordea
  - Energia Jasangarritasuneko Foru Batzordea
  - Nautrklima Fundazioa

### Saioetan erabilitako euskarriak/materialak:

Saioetarako **gonbidapenak** (bai informazio-jardunaldia, bai eztabaida-saioak) posta elektronikoz egin ziren. Gonbidapenekin batera, **parte hartzeko inprimaki** batzuk ere bidali ziren, beste eragile batzuekin egindako saioetan antolatutako dinamiketan erabili zirenak. Era berean, formulario horiekin batera, **Estrategian jasotako jarduera-ildoen eta ekintzen laburpena** bidali zen. Gonbidapen guztietan bertaratzearen berrespena eskatzen zen, saio bakoitza behar bezala antolatzeko.

Saio guztietako azalpenen tartean **aurkezpen bat** erabili zen eta saio bakoitzeko aurkezpenak GFAko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren web gunean jarri ziren herritarren nahiz entitateen eskura. Aipatu aurkezpenak ondorengo estekan eskura daitezke: [Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia 2050](#) ("Partaidetzako deliberazio prozesua" izeneko atalean).

Informazio-jardunaldiaren eta bestelako eragileekin egindako eztabaida-saioen ondoren, parte-hartzaile guztiei jakinarazi zitzaizen bilera amaitu aurretik deliberaziozko **parte-hartze saioa baloratzeko galdetegia** jasoko zutela. Informazio-jardunaldian eta eztabaidarako saioetan parte hartu zuten 153 pertsonetatik 73k osatu zituzten balorazio-galdetegiak (hau da, parte-hartzaileen %47,71k bete zituen galdetegiak) eta jasotako batez bestekoa 10etik 7,86koa izan zen.

Hauek dira ondorengo saioetan jasotako balorazio globalak:

- Jardunaldi informatiboa (2021-28-04): 7,6.
- Jasangarritasun Enegetikoko Lurralde Mahaiaren saio berezia (2021-12-05): 8,3
- Debabarrena eskualdeko saioa (2021-17-05): 8,2
- Oarsoaldea eskualdeko saioa (2021-19-05): 7,7
- Debagoiena eskualdeko saioa (2021-21-05): 7,9
- Tolosaldea eskualdeko saioa (2021-24-05): 6,4
- Goierri eskualdeko saioa (2021-27-05): 7,5
- Urola Garaia eskualdeko saioa (2021-27-05): 7,8
- Unibertsitateekin, zentro teknologiko eta ikerketa-zentroekin, eta prestakuntza-zentroekin saioa (2021-06-01): 9
- Enpresekin, elkargo ofizialekin, etab. antolatutako saioa: 03-06-2021): 7,7
- Urola Erdia eskualdearekin saioa (27-05-2021): 7
- Estrategia eta generoari buruzko saioa (9-06-2021): 8,75
- Beste eskualdeekin antolatutako saioa (14-06-2021): 8,4

Balorazio guztiak aztertu eta txosten batean barneratu dira. Txosten horretan, jasotako balorazioak zehazten dira, honako alderdi hauei dagokionez: saioaren eguna eta ordutegia, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak emandako informazioaren nahikotasuna eta argitasuna, ezarritako helburuen eraginkortasuna, zalantzak argitzea, saioa eraginkortasunez jarritzea eragozten edo zailtzen duten oztopoak, sortutako giroa, saioaren balorazioa oro har, etorkizuneko partaidetza-prozesuetarako hobekuntzak proposatzea. Azken alderdi horri dagokionez, proposamen zehatzak honako arlo hauei buruzkoak izan ziren:

- Euskararen presentzia handiagoa bermatzea (informazio-jardunaldian eta eztabaida-saio batzuetan aipatu zen).
- Informazio-jardunaldia: azalpen-zatia murriztea eta galdera, zalantza eta abarrei denbora gehiago ematea.
- Deliberazio-saioak: estrategiaren edukia luzea eta oso teknikoa denez, eragile askok Estrategiaren alderdi edo proiektu zehatzei buruzko informazio- eta deliberazio-saio gehiago antolatzea proposatu zuten, beren ustez ez baitzen behar bezala bermatu gai horiek behar duten eztabaida (hain gai garrantzitsu batek eta lantzeko horrenbesteko eremu dituenak partaidetza-saio gehiago behar dituela uste zuten). Dinamikak gaikako taldeen arabera antolatzearen egokitasuna ere aipatu zen. Era berean, aurrez aurreko saioak berriro antolatzeko interesa azaldu zen zenbait eragileren aldetik.

Euskarri teknikoari dagokionez, partaidetzazko deliberazio-prozesua dinamizatzeko kontratatutako laguntza teknikoaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskararen Foru Zerbitzuaren euskara-gaztelania aldebereko itzulpen-zerbitzua eta saioak telematikoki garatzeko beharrezkoa den euskarri informatikoko zerbitzua izan zituen.

### **Saioetan garatutako dinamikak:**

Lurraldeko eragike sozioekonomikoekin antolatutako saioetan izena eman zuten pertsonen ekarpenak jasotzeko asmoz, Estrategia onartzeko protokoloa nahiz prozedura eta dokumentu estrategiko horren edukia azaldu ondoren, deitutako eragileen jarduerarekin lotura handiena duten ekintzei lotutako dinamika sorta bat antolatu zen (saio bakoitzeko aktetan dinamika horien ezaugarriak kontsulta daitezke).

Jasotako ekarpen-motari dagokionez, nabarmendu behar da gehienek arreta jarri zutela eragile desberdinek trantsizio energetikoan edo beren lan-eremuaren deskribapenean parte hartzeko dituzten zailtasunetan (azken kasu horretan, eragile gehienek erakutsi zuten GFA laguntzeko prest zeudela Estrategiarekin lotutako proiektu zehatzen garapenean). Neurri txikiagoan bada ere, parte-hartzaile batzuek proposamen zehatzak egin zituzten, gai hauei lotuta:

- Energia-kudeaketari buruzko hezkuntza, prestakuntza eta sentsibilizazioa. Inplikaturako eragile guztiak ahalduzko beharra.
- Energia Jasangarriko eta Pobrezia Energetikoko Lurralde Mahaia dinamikoa izateko proposamenak.
- Energia-inpaktu handia duten enpresen bero-soberakina aprobetxatzeko proiektuak abiaraztea, horietan udalak, enpresak eta GFA elkarlanerako bideak bilatuz.

- Berreskuratutako lurzoruen birmoldaketa, energia berriztagarriekin zerikusia duten proiektuak diseinatu eta garatu ahal izateko.
- Zerga-sistemaren berrikuspena bultzatzea, herri-administrazioaren maila ezberdinetan
- Energia eta genero ikuspegia
- Energia eta bizikleta bidezko mugikortasuna.

Bestetik, bai Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusitik bai Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusitik ondorengo eragileen parte-hartzea bermatzeko tresnak erraztu ziren:

- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundiaren Departamentu arteko Batzordea
- ✓ Jasangarritasun Energetikoko Foru Batzordea
- ✓ Naturklima fundazioarekin aldebiko bilera
- ✓ Energiaren Euskal Erakundearekin aldebiko bilera
- ✓ Banakako herritarrak

#### **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDITIK KANPOKO ERAGILEEKIN SAIOAK:**

21 eztabaida-saio antolatu ziren eta bertan erabilitako aurkezpenak GFAko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren web gunean eskura daitezke.

Aipatzekoa da Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak Gipuzkoako eragile sozioekonomikoekin aurreikusitako saioetako bat bertan behera utzi behar izan zuela (talde ekologistek zuzendutakoa), antolakuntzak ez baitzuen parte-hartzeko izen-ematerik jaso (zehazki, 2021eko ekainaren 2an Gipuzkoako ingurumen-elkarteekin, elkarte ekologistekin eta kontserbazionistekin egitekoa zen bilkura da). Saio hau antolatze orduan, kontuan hartu zen Landarlan eta Naturkon elkarteetako ordezkariak 2021eko apirilaren 28ko informazio-jardunaldian egindako eskaera, zeina ekainaren 2rako aurreikusia zegoen saio hori arratsaldean antolatze eskaeran oinarritu baitzen, elkarte horietako ordezkariak bertaratzeko erraztasunak emate aldera. GFAk eskaera hori aintzat hartu eta saioa arratsaldean antolatu bazen ere, ez zen bertaratzearen baieztapenik egon eta beraz, saioa ez zen egin).

Gipuzkoako Foru Aldunditik kanpoko eragileen parte-hartze saioetan 166 pertsonen parte hartu zuten guztira, horietatik % 52 emakumeak ziren eta % 48 gizonak. Zenbaketan ez dira aintzat hartu saioen antolaketan parte hartu zuten pertsonak.

Jarraian, saioen ezaugarri orokorrak jasotzen dira:

#### **Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkide taldeekin kontraste-prozesua:**

Maiatzaren 21ean GFAko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak Gipuzkoako Batzar Nagusietako Saileko Batzordean agerraldia egin zuen, Estrategiaren eta deliberaziozko partaidetza-prozesuaren protokoloaren edukia azaltzeko. Beranduago, maiatzaren 26an, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak batzarkide taldeen ordezkariak eztabaida-saioak antolatu zituen eta aipatu ordezkariak ekarpenak egin ahal izan zituzten (ekarpen horiek eranskin moduan jasotako aktetan barneratzen dira). Ondorengo batzarkide taldeekin bildu zen Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia:



- Elkarrekin Gipuzkoa
- Eusko Abertzaleak – Nacionalistas Vascos
- EH Bildu
- Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak
- Batzarkide Talde Misto Popularra

Eztabaida-saio honetan 24 batzarkidek parte hartu zuten (10 emakume eta 14 gizon) eta 30 ekarpen jaso ziren orotara.

### **Lurralde mailako eragileekin eztabaida-saioak:**

#### ***Energia Jasangarriaren eta Pobrezia Energetikoaren Lurralde Mahaiaren saioa (2021-05-12):***

Lurraldeko garapen ekonomikorako agentzien eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkariak parte hartu zuten. Parte-hartzaile kopurua, guztira: 11 (horietatik 7 emakumeak ziren eta 4 gizonak), Gipuzkoako 8 garapen-agentzia ordezkatzuz.

Ekarpenak biltzeko 2 dinamika egin ziren:

- Gipuzkoarako diseinatutako energia-ereduari lotutako lehenengo dinamikan, lehenik eta behin, Energia Jasangarriaren eta Pobrezia Energetikoaren Lurralde Mahaiak energia-eredua osatzen duten helburu estrategikoak betetzea errazteko zer eginkizun izan behar duen galdetu zitzaizen eskualdeko garapen-agentziei. Lurralde Mahaiak bete beharko lituzkeen funtzioei lotutako ekarpen ezberdinak jaso ziren, eta Ingurumen Zuzendaritzak aztertu eta erantzungo ditu, Lurralde Mahaiaren funtzionamenduaren eraginkortasuna hobetzeko.

Ondoren, eskualdeek eta eskualdeko garapen-agentziek energia-eredu horren alde lan egiteko duten funtzioa zein izan behar den galdetu zen. Ildo horretan, hemen ere askotariko ekarpenak bildu ziren. Horiek honela laburbiltzen dira: sareko lana indartzea eskualde bakoitzaren barruan zein Lurralde Mahaiaren esparruan, deskarbonizazioaren aldeko proiektuak diseinatzea, eskualdeko energia-planak behar bezala diseinatzea, eskualde mailako energia-estrategiak edo -planak ezagutaraztea, energia-eraginkortasuneko eta energia berriztagarrietako proiektuak bultzatzea, eskualdean dauden sektore guztiei zuzendutako sentsibilizazio-/informazio-/prestakuntza-ekintzak indartzea, lankidetzak publiko-pribatuko eredu bakarra eraikitzea (eskualde mailako energia-bulego baten eredu, esaterako), GFA eta udalen arteko zubi-lana eta elkarlana erraztea, Estrategiaren eta eskualdeetako energia-planen arteko koordinazioa hobetzea.

Azkenik, zailtasun nagusiak non ikusten dituzten galdetu zitzaizen garapen agentzietako ordezkariak. Aipatutako zailtasun gehienak honako hauek dira: baliabiderik eza, energia-trantsizioarekiko konpromiso politiko irmorik eza, eskualdeetako udalen artean akordioak lortzeko zailtasuna, eskualde bereko udalantzako interes komuneko proiektuak definitzea, Estrategia eskualdeen errealitatera egokitzea, udalerrri asko dituzten eskualdeetan proiektu komunak koordinatzeko zailtasuna, etab.

- Bigarren dinamikan, Gipuzkoa Energia 2050 Estrategiaren 1.2 eta 1.6 arteko jarduerarildoetako ekintza zehatz batzuei buruzko eztabaidarako gakoak azaldu ziren. Zehazki, agentziei galdetu zitzairen ea proposamenik egin nahi zuten ekintza horiek garatzeko moduari buruz eta ekintza horien ardura zuten eragileei buruz. Ekintza horiek garatzeko moduaren eta arduren inguruko ekarpen ezberdinak bildu zituen Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak.

Parte-hartze saio honetan 47 ekarpen jaso zituen antolakuntzak orotara.

### **Debabarrena eskualdeko saioa (2021-05-17):**

Eskualdeko udaletako, garapen-agentziako eta landa-garapen elkarteko eragileek eta antolakuntza moduan, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak parte hartu zuten. Parte-hartzaile kopurua: 6 (horietatik 5 emakumeak eta gizonezko 1), eskualdeko 3 udal, auzo-udal 1, garapen agentzia eta eskualdeko landa-garapen elkartea ordezkatu.

Estrategiaren jarduerarildoetako ekintzen zerrendatik udalerrien eta eskualdeen ikuspuntutik zeresana izan dezaketen ekintza-sorta eztabaidatu zen partaideekin. Horrela, 32 ekarpen jaso ziren orotara.



Irudia: Debabarrena eskualdeko saioa.

### **Oarsoaldea eskualdeko saioa (2021-05-19):**

Eskualdeko udaletako zein garapen-agentziako ordezkariak, eta antolakuntza moduan, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak parte hartu zuten. Parte-hartzaile kopurua: 5 (2 emakume eta 3 gizon), eskualdeko 3 udal eta garapen-agentzia ordezkatu.

Estrategiaren jarduerarildoetako ekintzen zerrendatik udalerrien eta eskualdeen ikuspuntutik zeresana izan dezaketen ekintza-sorta eztabaidatu zen partaideekin. Ildo honetan, 14 ekarpen jaso ziren (horien erdia saioan bertan eta beste erdia parte hartzeko aukerarik izan ez zuen udaletako baten teknikariak bidalitakoa).

### ***Debagoiena eskualdeko saioa (2021-05-21):***

Eskualdeko udaletako, mankomunitateko, landa-garapen elkarteko, zenbait enpresetako eragileek eta antolakuntza moduan, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak parte hartu zuten. Parte-hartzaile kopurua: 10 (6 emakume eta 4 gizon), eskualdeko 2 udal, mankomunitatea, eskualdeko landa-garapen elkartea, eskualdeko zenbait enpresa eta energia berriztagarrien merkatutzatzaile 1 ordezkatzuz.

Estrategiaren jarduera-ildoetako ekintzen zerrendatik udalerrien eta eskualdeen ikuspuntutik zeresana izan dezaketen ekintza-sorta eztabaidatu zen partaideekin. Horrela, 18 ekarpen jaso ziren orotara.

### ***Tolosaldea eskualdeko saioa (2021-05-24):***

Eskualdeko udaletako nahiz garapen-agentziako ordezkariak, landa-garapen elkarteko ordezkariak, eta antolakuntza moduan, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak parte hartu zuten. Parte-hartzaile kopurua: 9 (2 emakume eta 7 gizon), eskualdeko 4 udal, landa-garapen elkartea eta garapen-agentzia ordezkatzuz.

Estrategiaren jarduera-ildoetako ekintzen zerrendatik udalerrien eta eskualdeen ikuspuntutik zeresana izan dezaketen ekintza-sorta eztabaidatu zen partaideekin. Horrela, 2 ekarpen jaso ziren orotara.

### ***Goierri eskualdeko saioa (2021-05-27)***

Eskualdeko udaletako zein garapen-agentziako ordezkariak, eta antolakuntza moduan, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak parte hartu zuten. Parte-hartzaile kopurua: 7 (2 emakume eta 5 gizon), eskualdeko 5 udal eta garapen-agentzia ordezkatzuz.

Estrategiaren jarduera-ildoetako ekintzen zerrendatik udalerrien eta eskualdeen ikuspuntutik zeresana izan dezaketen ekintza-sorta eztabaidatu zen partaideekin. Horrela, 2 ekarpen jaso ziren orotara.

### ***Urola Garaia eskualdeko saioa (2021-05-28):***

Eskualdeko udaletako, garapen-agentziako, Ingurugelako (Eusko Jaurlaritzan), Urola Garaiko Lanbide Eskolako ordezkariak parte hartu zuten (antolakuntza moduan, Gipuzkoako Foru Aldundia). Parte-


hartzaile kopurua: 8 (5 emakume eta 3 gizon), eskualdeko 3 udal, garapen-agentzia, landa-garapen arlkartea, erakunde publiko 1, lanbide-eskola bat ordezkatzuz.

Estrategiaren jarduera-ildoetako ekintzen zerrendatik udalerrien eta eskualdeen ikuspuntutik zeresana izan dezaketen ekintza-sorta eztabaidatu zen partaideekin. Horrela, 6 ekarpen jaso ziren orotara.

#### ***Urola Erdia eskualdeko saioa (2021-06-08):***

Eskualdeko udaletako zein garapen-agentziako ordezkariak, eta antolakuntza moduan, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak parte hartu zuten. Parte-hartzaile kopurua: 8 (6 emakume eta 2 gizon), eskualdeko 3 udal, landa-garapen elkarte eta garapen-agentzia ordezkatzuz.

Estrategiaren jarduera-ildoetako ekintzen zerrendatik udalerrien eta eskualdeen ikuspuntutik zeresana izan dezaketen ekintza-sorta eztabaidatu zen partaideekin. Horrela, 2 ekarpen jaso ziren orotara.




Irudia: Urola Erdia eskualdeko saioa (2021-06-08)

#### ***Donostiako Udalarekin eta beste eskualdeekin antolatutako saioa (2021-06-14):***

Donostiako Udaleko ordezkariak eta Beterri-Buruntza, Bidasoa eta Urola Kosta eskualdeko ordezkariak bidali zitzaizkien parte hartzeko gonbitea.

Aipatu eskualdeetako udal eta eskualde mailako garapen agentzietako ordezkariak (Beterri-Buruntzako udalak, Urola Kostako Udal Elkarte eta Bidasoa bizirik) nahiz Donostiako Udaleko ordezkariak parte hartu zuten saioan. Parte-hartzaile kopurua: 16 (11 emakume eta 5 gizonezko), aipatutako 3 garapen-agentziak eta 9 udal ordezkatzuz.

Estrategiaren jarduera-ildoetako ekintzen zerrendatik udalerrien eta eskualdeen ikuspuntutik zeresana izan dezaketen ekintza-sorta eztabaidatu zen partaideekin. 2 ekarpen jaso ziren saio honetan.



Irudia: 2021eko ekainaren 14ko saioa.

#### Gaikako 4 eztabaida-saioak:

##### *Teknologia- eta ikerketa-zentroak, unibertsitateak eta prestakuntza-zentroak (2021-06-01):*

Unibertsitateetako, teknologia- eta ikerketa-zentroetako, prestakuntza-zentroetako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak parte hartu zuten (azken hauek, antolakuntza moduan). Parte-hartzaile kopurua: 8 (horietatik 4 emakumeak eta 4 gizonezkoak), lurraldeko 3 teknologia- eta ikerketa-zentro, 3 unibertsitate campus, eta lanbide-heziketako 2 ikastetxe ordezkatzuz.

Estrategiaren jarduera-ildoetako ekintzen zerrendatik deitutako eragileen jardunarekin zeresana izan dezaketen ekintza-sorta eztabaidatu zen partaideekin. Aurrekoaz gain, ekintza horien garapenean aipatu eragileek izan dezaketen funtzioa edo egin dezaketen ekarpena zer nolakoa izan daitekeen ere galdetu zitzaien.

Saio honetan 14 ekarpen jaso ziren.



Irudia: 2021eko ekainaren 1eko saioa.

### ***Enpresa-elkarteekin, sindikatuekin, elkargo profesionalekin eta enpresekin saioa (2021-06-03):***

Enpresa sektoreko, merkataritza-elkarteetako eta energia berriztagarrien merkaturatzaileetako kide ezberdinek parte hartu zuten. Parte-hartzaile kopurua: 5 (emakume 1 eta 4 gizon).

Estrategiaren jarduera-ildoetako ekintzen zerrendatik deitutako eragileen jardunarekin zeresana izan dezaketen ekintza-sorta eztabaidatu zen partaideekin. Aurrekoaz gain, ekintza horien garapenean aipatu eragileek izan dezaketen funtzioa edo egin dezaketen ekarpena zer nolakoa izan daitekeen ere galdetu zitzairen. 17 ekarpen jaso ziren.

### ***Estrategia eta generoari buruzko saioa (2021-06-09):***

Enpresa, elkarte, tokiko herri-administrazioko eta Foru Aldundiko, ikerketa arloko eta prestakuntza arloko ordezkariak parte hartu zuten. Parte-hartzaile kopurua: 7 (emakumeak denak).

Estrategiaren edukia eta bere hasierako onarpenaren proiektuan genero-ikuspegia nola txertatu den azaldu ondoren, egun dauden desberdintasunak murrizteko potentzial handiena duten funtsezko eremuei (eta lotutako ekintza-taldeei) buruz eztabaidatzea izan zen saio honen helburu nagusia. Eztabaida hori honako alderdietan oinarrituz planteatu zen:

- Behatokiak eta azterlanak
- Kide anitzeko organoak eta energiaren tokiko gobernantza
- Herritarrei zuzendutako informaziorako eta aholkularitzarako tresnak
- Planei, energia-erkidegoei eta proiektuei zuzendutako dirulaguntzak
- Prestakuntza zehatzerako, lanerako eta tokiko ekonomia suspertzeko aukeren sorrera

Parte hartu zuten emakumeek 28 ekarpen egin zituzten.



Irudia: Estrategia eta generoari buruzko Saioa (2021-06-09)

### ***Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren eta Energiaren Euskal Erakundearen arteko bilera (EVE) (2021-07-05)***

Energiaren Euskal Erakundeko 3 ordezkariak parte hartu zuten. Aipatu ordezkariak Estrategiaren garapenean lagun dezaketen tresna ezberdinak eskaini zituzten; hala nola, Gipuzkoako energia jasangarritasunerko behatokia hornitzeko datuak erraztea, etab.

#### ***Banakako herritarren parte-hartzea***

Eragile eta herritar interesdunak erregistratzeko fasean (fase hau irekita egon zen 2021eko martxoaren 3tik apirilaren 24ra bitartean), Gipuzkoako eskualde hauetako 8 herritar inskribatu ziren:

- Debarrena: 2 gizon (Mutrikuko 1 eta Elgoibarko 1)
- Bidasoa: 2 gizon (Irún)
- Donostia: 1
- Debagoiena: 2 gizon (Aretxabaletako 1 eta Bergarako 1)
- Beterri-Buruntza: emakume 1 (Hernani)

Erregistro-fasea itxi ondoren, inskribatutako 7 herritarrekin harremanetan jarri zen antolakuntza-taldea; izan ere, partikular batek ez zuen ez telefonorik ez posta elektronikorik eman partaidetzako deliberazio-prozesuaren hurrengo faseen berri eman ahal izateko (2021-04-28ko informazio-jardunaldia komunikazio-fasean eta eztabaida-saioak Estrategiaren inguruko eztabaida-fasean). Izandako elkarrizketen ondoren, soilik 4 herritarrek agertu zuten parte hartzeko interesa, hainbat modutara:

- 2 partikular joan ziren informazio-jardunaldira.
- Herritar batek bere ekarpenak bidali zituen erakundeak horretarako diseinatutako formularioa erabiliz. Ekarpene kopurua: 1.
- Partikular batek interesa agertu zuen bere eskualdeko saioan (Debarrena) edo elkarte ekologistek zuzendutako saioan parte hartzeko, baina ezin izan zuen parte hartu arrazoi desberdinegatik (alde batetik, lan-ordutegiagatik, ezinezkoa baitzitaion goizean antolatutako saioetan parte hartzea, eta bestetik, ekainaren 2ko saioa bertan behera geratu zelako – elkarte ekologistek zuzendutakoa, hain zuzen –, deitutako elkarteek ez zutelako parte hartu. Egoera azaldu ondoren, azkenean ekarpenen txostena baliatuz bidali zituen bere ekarpenak. Ekarpene kopurua: 12 (horietako batzuk neurri zehatzen arabera sailkatuta daude).

Banakako herritarrek ere egindako ekarpenak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak aztertuko ditu.

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN BAITAKO ERAGILEAK:

### **Departamentu arteko batzordearen saioa (2021-05-27):**

Sailen eta foru sozietate publikoen ordezkariak parte hartu zuten (28 ordezkari orotara. Horietatik 13 emakumezkoak eta 15, gizonezkoak), eta gai zerrendan zeharkako politika publikoak landu zituzten, besteak beste, Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia. Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak egindako azalpenaren ondoren, esku-hartze bakarra egon zen, eta beste eragile batzuekin antolatutako eztabaida-saioretara zenbat pertsona joan ziren jakin nahi izan zuen. Ez zen ekarpenik egin Estrategiaren edukiari dagokionez.

### **Jasangarritasun Energetikoko Foru Batzordearen bilera (2021-06-16):**

Foru-partaidetzako organoa da, 2019an sortu zena, Euskadiko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearen 9. Artikuluak hala ezartzen baitu, eta, besteak beste, lege horretatik eratorritako betebeharren betetze-mailaren jarraipena egitea dagokio.

Batzordearen bileran 9 foru ordezkariak parte hartu zuten; horietatik 4 emakumeak ziren eta 5 gizonak. Ez zen Estrategiaren edukiari lotutako ekarpenik egin.

### **Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren eta Naturklimaren arteko bilera (2021-06-30)**

Fundazioko ordezkari batek parte hartu zuen eta energia-trantsizioa bizkortzeko balio duten proiektuak abian jartzeko orduan Naturklima GFArekin lankidetzan aritzeko borondate osoa agertu zuen.

Donostian, 2021eko uztailaren 19an.



## DELIBERAZIOZKO PARTAIDETZA PROZESUAN PARTE HARTU DUTEN ERAGILEEN INGURUKO LABURPEN-TAULA

### I. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDITIK KANPOKO LURRALDEKO ERAGILEAK:

SAIOA	DATA	PARTAIDEAK (Erakunde mota)	PARTAIDE (zenbat)	SEXU- GENEROA	Entitat eak (zenbat )	On-line/ Aurrez aurrekoa	EKARPEN KOPURUA	EKARPENEN LABURPENA
<b>Informazio saioa</b>	2021/04/28	-Udalak -Garapen Ekonomikorako Agentziak -Landa Garapenerako Agentziak -Unibertsitatea -Fundazioak -Ingurumen elkarteak -Energia enpresak -Lanbide Heziketa -Nekazari elkarteak -Enpresak -Partikularrak	50	23e / 24g 3k ez zuten euren burua aurkeztu.	40	On-line	2	- GJEE2050a gainerako energia-estrategia eta politikekin koordinatzea. - Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzeko zeharkako tresna gisa hartzea.
<b>Energia Jasangarriaren Lurralde Mahaia</b>	2021/05/12	-Garapen Ekonomikorako Agentziak -Udaleko Sustapen ekonomikorako arloa	11	7e /4g	8	On-line	47	- Lurraldeko energia-mahaiaren dinamikotasuna handitzea, informazioa/esperientziak partekatu eta eskualdekoak batera garatzeko. - Lurralde Mahaian gaikako lan-taldeak sortzea. - Eraldaketa energetikorako tresna eta arauen garatzea. - Eragile ezberdinengana iristeko neurriak ezartzea. - Eragileen saretzea eta koordinazioa bultzatzea. - Formazio eta sentsibilizaziorako plangintza garatzea.

								<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aldunditik Udalek eta eskualdeek proiektuak burutzeko laguntzak eskaintzea.</li> <li>- Energia berriztagarriak eta energia-eraginkortasuna bultzatzea.</li> <li>- Teknologia eta negozio berrien sustatzea.</li> </ul>
<b>Debabarrena</b>	2021/05/17	-Udalak -Garapen Ekonomikorako Agentzia -Landa Garapenerako Elkartea	6	5e / 1g	6	On-line	32	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aldundiak eragile ezberdinentzako laguntzak bideratzea.</li> <li>- Eskualdeko eragileen arteko koordinazioa bultzatzea.</li> <li>- Eraldaketa energetikorako eta proiektuen garapenerako tresnak eta baliabideak ezartzea.</li> <li>- Herritarrei zuzendutako sentsibilizazioa eta informazioa eskaintzea.</li> <li>- Eskualdeko eta udaletako teknikariei zuzendutako formazioa eskaintzea.</li> <li>- Hirigintza-plangintza energia-aurrezpen eta eraginkortasunarekin lerrokatzea.</li> </ul>
<b>Oarsoaldea</b>	2021/05/19	-Udalak -Garapen Ekonomikorako Agentzia	5	2e / 3g	4	On-line	14 (7 saioan + 7 a posteriori)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eraldaketa energetikorako eta proiektuen garapenerako tresnak, arauak eta baliabideak ezartzea.</li> <li>- Eskualdeko eragileen arteko koordinazioa eta lankidetzak publiko-privatua bultzatzea.</li> <li>- Industria sektorean eragitea eta baliabideak eskaintzea, energia-kontsumoa murriztu eta eraginkortasuna handitzeko.</li> <li>- Sektore ezberdinetan energia-kontsumoa murrizteko neurriak eta baliabideak ezartzea.</li> <li>- Eragileen inplikaziorako sentsibilizazioa bultzatzea.</li> </ul>
<b>Debagoiena</b>	2021/05/21	-Udalak -Mankomunitatea -Landa Garapenerako Elkartea -Eskualdeko Garapen Iraunkorrerako sarea	10	6e / 4g	9	On-line	18 (Mankomunitateak aurretik bidalitako ekarpenak)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aldundiak eragileen arteko lankidetzak bultzatzea eta laguntzak bideratzea.</li> <li>- Proiektu eta jarduerak gauzaterakoan, nekazal lur gutxien kontsumitzea.</li> <li>- Eraldaketa energetikorako eta proiektuen garapenerako tresnak eta baliabideak ezartzea.</li> </ul>

		-Enpresa-elkartea -Energia-enpresak					saioan bertan landu zirenez, saioko gisa hartu dira)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lankidetzak publiko-privatuak eta pribatu-privatuak erraztea.</li> <li>- Eraldaketak energetikoak sortutako ekonomia aukerak zaintzea.</li> <li>- Formazioa, sentsibilizazioa eta proiektuen garapena modu koordinatuan burutzea eta esperientziak partekatzea.</li> <li>- Hirigintza-plangintza energia-aurrezpen eta eraginkortasunarekin lerrokatzea.</li> </ul>
<b>Tolosaldea</b>	2021/05/24	-Udalak -Garapen Ekonomikorako Agentzia -Landa Garapen Elkartea	9	2e/7g	6	On-line	2	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Foru Aldundiko dirulaguntzen plangintza udal-egutegira doitzea.</li> <li>- Foru-araudien berrikuspena, Udalei eraldaketa energetiko ahalbidetzeko baliabideen eta hobekuntzen ezarpenean ez eragiteko.</li> </ul>
<b>Batzar Nagusietako batzarkide taldeak</b>	2021/05/26	Batzarkide taldeetako ordezkariak.	9	5e /4g	5	Aurrez aurreko a	30 1 (PSE) 2 (EHBildu) 19 (Elkarrekin-Podemos) 7 (EAJ) (saiokoak + a posteriori bidalia) 1 (Populares)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Dirulaguntzen plangintza doitu eta beste erakundeekin laguntzekin koordinazioa bilatzea.</li> <li>- Eraldaketa energetikoa hirigintzan txertatzea.</li> <li>- Eraldaketa energetikorako baliabideak gizarte osoari bermatzea.</li> <li>- Autokontsumoa kooperatibismo bultzatzea.</li> <li>- Udaletako eta eskualdeko energia-plangintzan eta -kudeaketan laguntzea.</li> <li>- Mugikortasun arloko neurriak aztertu eta sektore honi lotutako isurpenak murriztea.</li> <li>- Formazioa eta sentsibilizazioa bultzatzea.</li> <li>- GJEE2050en aldiroko berrikuspena, indarrean dagoen araudi eta helburuei egokitzeko.</li> <li>- Eragileen arteko lankidetzak bultzatzea.</li> <li>- Sektore pribatua parte hartzaile aktibo izateko neurriak ezartzea.</li> <li>- GJEE2050a Aldundiaren sail ezberdinetako planekin koordinatzea.</li> </ul>
<b>Goierri</b>	2021/05/27	-Udalak -Garapen	7	2e / 5g	7	On-line	2	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskualdeko eragileen arteko koordinazioa eta lankidetzak bultzatzea.</li> </ul>

		Ekonomikorako Agentzia						- Lurraldeko esperientziak partekatzea.
<b>Urola Garaia</b>	2021/05/28	-Udalak -Ingurugela -Garapen Ekonomikorako Agentzia -Landa Garapenerako Elkartea -Lanbide Heziketarako Zentroa	8	5e /3g	8	On-line	6	- Lurraldeko esperientzia egokia partekatzea udaletan edo eskualdeetan erreplikatzeko. - Eragileen formazio eta informaziorako baliabideak ipintzea. - Energia-eraldaketa eskualde eta Udaletan modu bateratuan emateko, helburu eta eredu amankomunak ezartzea. - Energia-eraldaketa landa eremuan txertatzeko neurriak aztertzea. - Ingurumena energia-eraginkortasunaren gainetik jartzea. - Kontsumo-arduratsua bultzatu. - Eragileen saretzea eta koordinazioa bultzatzea.
<b>Unibertsitatea, teknologia-zentroak...</b>	2021/06/01	-Unibertsitateak -Lanbide Heziketa zentroak -Zientzia eta ikerketa gunek	8	4e / 4g	7	On-line	14	Ekarpenak baino, partaideek azaldu dute energia arloan zer eskaini dezaketen.
<b>Ekologistak</b>	2021/06/02					Bertan behera, baieztapen ezagatik .	Ekarpenak ingurumen ebaluazioaren tramitazioak bideratu dira.	
<b>Enpresak/enpresa elkarteak/profesionalen elkargoak, etab.</b>	2021/06/03	-Energia enpresak -Finka Administratzaileen Lurralde Elkargoa -Komertzio-elkartea -Mankomunitatea	5	1e / 4g	5	On-line	17 (saioan eta aurretik bidalitakoak )	- Erakunde publikoen lidergotza bultzatzea - Energia-eraldaketan herritarrak, ahaldundu, informatu eta laguntzea. - Energia kontsumoa murriztu eta eraginkortasuna areagotzea. - Indarrean dagoen araudia aztertzea proiektuen garapena errazteko.
<b>Urola Erdia</b>	2021/06/08	-Udalak	8	6e / 2g	5	On-line	2	- Aldundiko dirulaguntzen plangintza udal-

		-Landa Garapenerako Elkartea -Garapen Ekonomikorako Agentzia						egutegira doitzea. - Baliabide gehiago jartzean udalerrien eta eskualdeen ezaugarriak kontuan hartzea.
<b>Estrategia eta Generoa</b>	2021/06/09	-Udalak - GFA -Fundazioak -Enpresak - Prestakuntza zentroak -Adituak	7	7e	7	On-line	28	- Errealitatea hobeto ezagutzeko eta beharrezko neurriak ezartzeko informazio xeheagoa eskuratzea. - Epe luzeko politikak garatzea. - Emakumeek energia sektorean jarduteko formazioa eskaintzea. - Informazio eta sentsibilizazio jardunaldietan emakumeen partaidetza bermatzeko neurriak hartzea. - Emakumeak enpresa zein erakundeetako erabaki-organoetan egoteko neurriak aztertzea. - Tradizionalki gizonezkoen lanpostuak izan direnetan emakumeak sartzeko neurriak aztertzea. - Genero ikuspegia politika-maila guztietan eta erabakitze-organoetan txertatzea. - Partaidetza saioetan emakumeen parte hartze aktiboa bermatu eta zaintzea. - Dirulaguntzetan genero ikuspegiko irizpideak modu egokian txertatzen direla bermatzea eta hauek estandarizatzea.
<b>Beste eskualdeak</b>	2021/06/14	-Udalak -Garapen Ekonomikorako Agentziak	16	11e / 5g	12	On-line bilera	2	- Energia-eraldaketarako proiektuetan entitate ezberdinek parte hartzen dutenean Aldundiak koordinatzaile papera betetzea.
<b>EVE</b>	2021/07/05	-Energia Erakunde Publikoa	3	3g	1	Aurrez aurrekoa	2	- GJEE2050en helburuen taulako datuak berrikustea.
<b>Partikularrak</b>	Posta elektronikoa	Gipuzkoako eskualde ezberdinetako	4	1e / 3g		Formula rio	13	- Gure gizarteak behar duen eredu-aldaketa azpimarratzen da, Estrategiaren bidez mamia

	eta telefono bidez.	banakako herritarrak				elektronikoak		(hau da, eredu-aldaketa) nahikoa eraldatzen ez dela uste baita (hau da, Estrategia azalekoa omen da eta arazoari zuzenean aurre egiteko proiektu, proposamen eta neurri zorrotzagoak behar dira Berotegi Efektuko Gasen isurpenean zeresana duten sektore guztietan. - Hernani eta Donostia arteko lotura oinez eta bizikletan modu seguruan egiteko proposamena (Galarreta eta Miramon lotzeko espaloia eta bidegorri bidezko loturaren proposamena).
<b>OROTARA (kanpokoak)</b>			<b>166</b>	<b>87e / 76g (+3)</b>	<b>130</b>		<b>231</b>	

## II. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOAK:

SAIOA	DATA	PARTAIDEAK (Erakunde mota)	PARTAIDE (zenbat)	SEXU-GENEROA	Entitateak (zenbat)	On-line/ Aurrez aurrekoa	EKARPEN KOPURUA	EKARPENEN LABURPENA
<b>Departamentu Arteko Batzardea</b>	2021/05/27	-Batzardeko partaideak -Batzardeburua	28	13 e / 15 g		Mistoa	1	Deliberaziozko partaidetza prozesuan parte hartu duten eragileek Estrategiarekiko nahiz prozesu berarekiko agertutako interesaren inguruan galdetu zen.
<b>Energia Foru Batzardea</b>	2021/06/16	-Batzardeko partaideak -Batzardeburua	9	4 e / 5g		On-line	0	Ez zen ekarpenik egin.
<b>Naturklima</b>	2021/06/30	-Fundazioa	1	1g		Aurrez aurrekoa	1	GFArekin trantsizio energetikoa errazten eta bideratzen lagun dezaketen proiektuak aurrera eramateko eta bide horretan lankidetzan aritzeko borondatea agertu zen.

<b>OROTARA (barrukoak)</b>			<b>38</b>	<b>17 e/21 g</b>			<b>2</b>	
--------------------------------	--	--	-----------	------------------	--	--	----------	--

### EMAITZAK GUZTIRA:

SAIOA	PARTAIDE (zenbat)	SEXU-GENEROA	Entitateak (zenbat)	EKARPEN KOPURUA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDITIK KANPOKO LURRALDEKO ERAGILEAK:	166	87 e / 76 g (+3)	130	231
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOAK	38	17 e / 21g		2
<b>OROTARA (barrukoak eta kanpokoak)</b>	<b>204</b>	<b>104e/97 g (+3)</b>	<b>130</b>	<b>233</b>

## I. ERANSKINA: PARTE HARTZERA DEITUTAKO ERAGILEAK

Jarraian, prozesuan parte hartzera gonbidatu ziren eragileen zerrenda jasotzen da. Txosten honetako "testuingurua" atalean jaso dira partaidetzazko deliberazio-prozesua irekitzean erregistratu ziren banakako pertsonen eta erakunde, elkarte, enpresa eta administrazio publikoen kopurua. Bestalde, informazio-jardunaldian, eztabaida-saioetan eta estrategia kontrastatzeko saioetan parte hartu zuten eragileen xehetasunak txostenaren II. Eranskineko aktetan zehazten dira.

### **GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK**

- Gipuzkoako Batzar Nagusietako Departamenduko Batzordea
- Batzarkide Taldeak (5)

### **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ETA BERE ERAKUNDEAK**

- Departamentuen arteko Batzordea: zeharkako izaera duten politika ezberdinak Foru-departamentu ezberdinetan eta bere Zuzendaritza Nagusietan koordinatzeaz arduratzen da.
- Foru Aldundiaren Departamentuak
- Jasangarritasun Energetikoko Foru-batzordea: 4/2019 Legearen 9. Artikuluak ezarritako agindua betetzeko asmoz eratu zen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ondorengo departamentuetako eta erlazionatutako edo menpeko entitateetako arduradunek osatzen dute: Ingurumena eta Obra Hidraulikoak, Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa, Gizarte Politikak, Proiektu Estrategikoak, Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunea, Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirola, Ogasuna eta Finantza, Gobernantza eta Bide Azpiegiturak, Diputatu Nagusiaren Alorra, KABIA, ADINBERRI FUNDAZIOA, ULIAZPI, KIROLGI, SUESKOLA, NATURKLIMA, ZIUR FUNDAZIOA, BIDEGI, MUBIL, IZFE.
- GIPUZKOAKO KLIMA-ALDAKETAREN FORU FUNDAZIOA – NATURKLIMA

### **TOKIKO GOBERNANTZA ENERGETIKOA:**

- **Gipuzkoako Energia Jasangarriaren eta Pobrezia Energetikoaren Lurralde Mahaia** (Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak eta Beterri-Buruntzako, Debarreneko, Debagoienako, Goierriko, Oarsoaldeko, Tolosaldeko, Urola Erdiko eta Urola Garaiko garapen-agentziek osatzen dute). Donostiako Udalarri (Donostiako Sustapena), Bidasoaldeko garapen agentziari (Bidasoa bizirik) eta Urola Kostako Mankomunitateari (Urola Kostako Udal Elkarte) ere parte hartzeko gonbidapena bidali zitzaion.
- **Gipuzkoako eskualdeak:** udalako ordezkari politikoak eta teknikariak, eskualdeetako garapen ekonomikoko agentziak, landa garapenerako elkarteak, eta zenbait eskualdeen kasuan, baita eskualde horietako prestakuntza-zentroak, enpresa-ehundura.
- **EUSKO JAURLARITZA**Energiaren Euskal Erakundea (Energiaren Entitate Publikoa -EVE-)

### **BESTELAKO ERAGILEAK**

- Landa-garapenerako elkarteak (Gipuzkoan 6 daude), eta bere federazioa (LANDAOLA)



- Sindikatuak
- Zubigune Fundazioa
- Energia berriztagarrien elkarteak eta kooperatibak
- Talde ekologistak eta ingurumenarekin harremana duten elkarteak: Eguzki talde ekologista, Ekologistak Martxan talde ekologista, Haritzalde Naturzaleen Elkarte, Itsas Enara ornitologia elkarte, Greenpeace España, SEO/Birdlife Donostia, Landarlan Ingurumen Elkarte.
- Ikerketa guneak eta ikerketa-zentroak: Aranzadi Zientzia Elkarte, Tecnalía-IK4
- Merkataritzako eta enpresetako elkarteak (2. eta 3. Sektoreak): ADEGI, Gipuzkoako Ganbara, ACLIMA (Euskadiko Ingurumen Industrien Kluster Elkarte), Gipuzkoako eta Arabako Finka Administratzaileen Lurralde Elkargoa.
- Unibertsitate mailako zein lanbide-heziketako erakundeak eta elkarteak: Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Eskola, EHUko Donostiako Ingeniaritza Eskola Politeknikoa, TECNUN-Ingeniaritza Eskola (Universidad de Navarra), Mondragon Unibertsitateko Industria Prozesuetako Ekoteknologiaketako Ingeniaritza, Deustuko Unibertsitateko Energia Saila, ENEDI Ikerketa-taldea (Energetika Eraikuntzan), Usurbilgo Lanbide Eskola (Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak energiari lotutako berrikuntzaren arloko erreferentziatzko zentro gisa izendatua), UGLE (Urola Garaiko Lanbide Eskola), Easo Politeknikoa, Izarraitz Lanbide Heziketa, Aretxabaleta Lanbide Eskola, CIFP Meka Elgoibar, IES Plaiaundi, Tolosako Inmakulada Lanbide Eskola, Hernani Lanbide Heziketa, Miguel Altuna Lanbide Heziketa, Aretxabaleta Lanbide Heziketa.
- Elkargo profesionalak

## II. ERANSKINA: SAIOETAKO AKTAK

Jarraian prozesuan zehar antolatutako saio ezberdinetako aktak jasotzen dira, kronologikoki sailkatuta:

### 2050 GIPUZKOAKO JASANGARRITASUN ENERGETIKOAREN ESTRATEGIAREN DELIBERAZIOZKO PARTAIDETZA PROZESUA

PROCESO DE DELIBERACIÓN PARTICIPATIVA DE LA ESTRATEGIA DE SOSTENIBILIDAD  
ENERGÉTICA DE GIPUZKOA 2050

### 2050GJEE-REN DELIBERAZIOZKO PARTAIDETZA PROZESUAREN INFORMAZIO-JARDUNALDIA / JORNADA INFORMATIVA SOBRE EL PROCESO DE DELIBERACIÓN PARTICIPATIVA DE LA ESEG205

<b>Data / Fecha</b>	<b>2021ko apirilaren 28a, asteazkena</b> Miércoles, 28 de abril de 2021
<b>Ordua / Hora</b>	10:00-11:30
<b>Lekua Lugar</b>	<b>Zoom plataformaren bidez antolatutako bilera</b> Reunión organizada a través de la plataforma Zoom
<b>Gai-zerrenda / Orden del día</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Saioaren aurkezpena</b> / Presentación de la sesión</li> <li>- <b>Deliberaziozko partaidetza prozesuaren azalpena</b> / <b>Exposición del proceso de deliberación participativa</b></li> <li>- <b>2050 Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategiaren aurkezpena</b> / Presentación de la Estrategia de Sostenibilidad Energética de Gipuzkoa 2050</li> <li>- <b>Ekarpenak</b> / Aportaciones</li> </ul>
<b>Bertaratutakoak / Asistentes</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Agurtzane Etxaniz (Debemen)</li> <li>- Ainara Lasarte (Oarsoaldea)</li> <li>- Aitor Larrañaga Arteche (Leintz Gatzagako Udala)</li> <li>- Aitziber Cortazar (Debegesa)</li> <li>- Amaia Otazo (Ekogunea)</li> <li>- Ana Iragi (Oñargi)</li> <li>- Asier Larretxea (Tolosaldea Garatzen)</li> <li>- Carlos Garcia (Mondragon Unibertsitatea)</li> <li>- David Muñoz (Oarsoaldea)</li> <li>- Edurne Huesa (Landarlan/Naturkon)</li> <li>- Elena Rincón Zubeldia (Donostiako Emakumeen Etxea)</li> <li>- Garbiñe Mendizabal (Tolosaldea Garatzen)</li> <li>- Gregorio Iruretagoyena (partikularra - KABIA -)</li> </ul>

